



RIGOR MORTIS

tanTTAKA
teatroa

A TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

VICTORIA EUGENIA
Antzokiaz

**VITORIA I
GASTEIZ**
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

ANTZ3RKIZ

TXALO



SINOPSIA

Aitona Rufino hil berri da, ahoa zabalik. Amonak ez du inork horrela ikustea nahi. Bizilagun xelebrearen konplizitatearekin, edozer egingo du Rigor Mortisak ahoa itxita harrapatu dezan. Bitartean, alaba eta bilobaren aurrean disimuluan ibili beharrak endreduzko komedian sartuko gaitu. Lau emakume eta hilotz bat. Heriotzak familia batzea lortuko badu ere, sekretuak lau haizetara zabalduko dira guztiak aho zabalik utziaz. Alea iacta est.



FITXA ARTISTIKOA

EGILEA DORLETA URRETABIZKAIA

INTERPRETEAK JOSEBA APAOLAZA
AIZPEA GOENAGA
GARAIZ URKOLA
DORLETA URRETABIZKAIA

ZUZENDARITZA MIREIA GABILONDO
ZUZENDARI LAGUNTZAILEA LAIA BERNUÉS
ESPAZIO ESZENIKOA FERNANDO BERNUÉS
ARGIZTAPEN DISEINUA ALFREDO MEDINA LIRIO
JANTZITEGIA ANA TURRILLAS
ARGAZKIAK GORKA BRAVO
DISEINU GRAFIKOA ALEXANDRU STANCIU
BANAKETA TXALO
PRODUKZIOA TXALO eta TANTTAKA-ren produkzio bat

DORLETA URRETABIZKAIA

Lasarteko aktoreak oso gaztea zela debutatu zuen Goenkale telesailean. Magisteritzan lizentziaduna da eta Bartzelonako Nancy Tuñón eskolan ikasi zuen. Ikasketak amaitu ondoren antzerkian, zineman eta telebistan lan egin du. Antzerkian honako hauetan parte hartu du: Lotsagabeak, Nasdrovia Txekhov, Terapiak, Sisiforen paperak, Semea pixka bat motelago dabil soilik...

Eta zineman: Hil Kanpaiak, Espejoespejo, Magoadó, Utlandsk... eta telebistan: Martín, Policías, Irabazi arte, Zeru horiek, Desaparecido... besteak beste. Antzerkigile, gidoilari, itzultzaile, zuzendari eta zuzendari laguntzaile gisa ere aritu da.

Egiten duena maite duen emakumea da, eta horregatik egiten du.



MIREIA GABILONDO

Tanttaka Teatroa eta Tentazioa ekoiztetxeetako kideetako bat da. Eskarmentu handia du zuzendaritzaren eta interpretazioaren munduan, eta Euskal Herriko arte eszenikoen irudi nabarmenetako bat da; izan ere, arrakasta handia izan du, dela antzerkian, dela dantzan, dela zinema edo telebistan.

Antzerkian, zuzendaritzalanetan, bereazken muntaien artean, Desobedienteak 18/98, Interview, Badakizu plastikozko loreak ez direla inoiz bizi izan, ezta?, (bertan, egile eta zuzendari gisa, Zentro Dramatiko Nazionalarekin egiten duen lehen lankidetzat da), Ez naiz inoiz Dublinen egon, Sexberdinak, Ameriketako bidaia, Gauekoak, eta Azken trena Treblinkara. Aipatzekoa da ere Fernando Bernués-ekin batera zuzenduriko El Florido Pensil eta El Florido Pensil neskak antzezlanak.

Berak zuzenduak dira Kutsidazu Bidea Ixabel, Mugaldekoak, Amaren eskuak eta Erlauntza-Enjambre filmak.

2016az geroztik, “Antzekigintza berriak- Nuevas dramaturgias” idazkera dramatikoko laborategia zuzentzen du Patxo Telleriarekin batera, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak, Gasteizko Principal Antzokiak eta Bilboko Arriaga Antzokiak bultzatuta.



**DORLETA
URRETABIZKAIA**

**GARAZI
URKOLA**

**JOSEBA
APAOLAZA**

**AIZPEA
GOENAGA**

Lau emakume, difuntu bat. Aitona hil berri da. Familiako hiru emakume, eta bizilagun bitxi bat, haren bueltan. Heriotzak bildu ditu nahitaez. Gizona urruntzen doan heinean, emakumeak hurbilduz doaz, geroz eta hurbilago eta hurbilago... sekretuen azala urratu eta gotorlekutik ihes egiteraino.

Zenbat gauza ezkutatzen diren familia baten barruan. Gertu beharko luketenak, beste inor baino urrunago daude. Kontraesanez beteriko egitura, familia. Maitasunaren izenean, denak balio omen. Ala ez... Nire familiaz mintzatzeko gogoak bultzatu ninduen testu hau idaztera. Nire familiako emakumeez batez ere, gure arteko urruntasun eta aldi berean gertutasun eta beharraz. Gure kontraesanez. Maitasunaz eta gorrotoaz. Gure sekretuez. Familiaz azken batean. Baina zurruntasunik gabe, umore punttuarekin. Azken batean, heriotzak urrundu baino bildu egiten gaituelako eta sufrimenduaz gain umorea ere baduelako (edo hala izatea nahi nuke). Heriotza umorez bizitzeko beharrak eraman nau hau idaztera. Bizitzak umorez eginiko perfumea baitarama unerik tragikoenetan. Eta geure buruaz barre egiteko beharra inperiala bilakatzen da halako uneetan.

Dramaturgia Berrien barruan sortu zen testu hau idaztearekin bat, nire baitan desio bat gorpuzten hasi zen. Orain idazten ari naizen hitz hauek, irudi hauek errealitate bihurtuko balira, nire barrutik ateratzen ari den hau benetan oholtza gainean ikusterik eta entzuterik izango banu, Mireiak zuzentzea nahi nuke. Prozesuan izan delako, obrak darion umorea, absurdua kasik, ulertzen duelako eta antzezlan hau errealitate bihurtzeko zuzendari aproposena iruditzen zaidalako, eta baita zuzendari bezala izugarri miresten dudalako ere.

Dorleta Urretabizkaia

EGILEAREN OHARRA



Dorleta Urretabizkaia idatzi duen testu hau gertutik ezagutzen dut; dakizuen bezala “ Antzerkigintza berriak” laborategian landutako idazlan bat delako. Beraz badakit nondik idatzita dagoen, zer kontatu nahi duen eta pertsonaia horien zergatia eta norabidea.

Gustuko dut zertaz hitz egiten duen eta nola hitz egiten duen, tonuaz ari naiz: komedia eta dramaren arteko joan etorrian ibiliko garelako.

Familiako kide bat hiltzen denean, baliteke denen bizitza hankaz gora jartzea, bizitako gezurrak edo ezkutuan eramandako egiak umezurtz gelditzen direnean zer etorkizun datorkigu? Hemen hasten da ikuskizun hau.

Eta hemendik aurrera, erabaki bizkorrak hartu beharko dira, tanatorioko galderak premiaz erantzun beharko dira, alabaren galderei aurre egin, bilobaren beldurrei egoera berri baten aurrean (haurdun dago???) behar duten tokia eta garrantzia eskaini... eta hau dena gutxi balitz, hildakoaren ahoa irekita geratu da eta ez dakite zer egin behar duten ahoa ixteko herriko biztanleek ahoa irekita ikus ez dezaten gure RUFINO zendua. Komedia argi ikusten da, eta Dorletak pertsonaia politak egin ditu, gertukoak eta geure herrikoak edo familiakoak sentituko ditugu.

Mireia Gabilondo

ZUZENDARIAREN OHARRA

